



**Helduen Literatura**

*Hunik arrats artean*  
Anjel Lertxundi  
Lur, 1970

## Noizbait hasten baita

BERROGEITA LAU urte luze eta oparoko ibilbide literarioa noizbait hasiko zen. Eta abiapuntua *Hunik arrats artean* honetan kokatu behar. 1970. Gutxigatik, Rafael Berrioren diskorik merezi ez duen urtea. Ipuingintza huskeria izatearen ustetik libratzen ari zen garaia. Anjel Lertxundi “izan zen lehena, Martin Ugaldere ondoan, ipuina modu sistematikoan lantzen eta genero honi literatur balio osoa ematen”, esango digu Izagirre-Mendiguren tandemak. Ipuin liburuaren azal hegala mintzo zaigu orain, akaso ausarki, estreinakoa baitzen, hogeita bi urterekin argitaratua: Anjel Lertxundi “euskal literaturako ipuinegileen artean onenetako bat da”. Hasier Etxeberrriaren *Bost idazle* elkarrizketa liburuan aitortzen du Lertxundik azal hegal horrekiko ahalkea; berak idatzi ez zuela aitortzeaz gainera.

Emaizta gogoangarrienak nobelagintzan aitortu bazaizkio ere –*Hamaseigarrenean, aidanez, Otto Pette*–, Espainiako sari nazionala saiakera batekin irabazi duen arren –*Eskarmentuaren paperak*–, hasieran izan zen ipuina. Kasu honetan ipuin aski laburra, errebuelarik gabea, ez gutxitan bihurria. Tarteka, hegoamerikarren errealismo magiko deitu hura gogorazten-edo diguna. *Luisa* ipuinean, esate batera, eta ez bakarrik “maitasuna ahaztuta egiten” dutelako; protagonistatik: “hamabi urterekin haurdun zen eta ez zekien aitaren berri. Augusto bere aita izan zeza-

kean. Edo Augusto, bere anaia. Edo Augusto, bere etxean bizi zen lengusua”. Marteka saiakeratxora gerturatzen den ipuina, iritzitik iristen dena: adibide dira *Pentagrama bat osatu ezinean* –abeslariak, “musika fusilatu, hurkatu ditek, hitza salbatzearen”– edota “Bizardunen bizarra eta loretoia” –“Egun, estruktura etsai bat dugu eta ertiliak dira estruktura salatzailerak”. Tarteka eta marteka, azkenerako, izateko gure herriaren berri ematen digun ipuina. *At joaten geranean*, erakusgarri gisa: “Literatura eta ertia burgeskeriak dira”, aurrerago esateko “Marx bakarrik irakurtzea da burgeskeria”. Baina, tira, Lertxundik esaten zuen jada, 1970ean dagoeneko: “Snob-zale gehiegi dago gure herrian”.

Berrogeita lau urte ez dira alferrik pasa, ordea; gauza batzuetan, onerako gainera: “Ba diat nik lagun bat astero *Zeruko Argian* idatziazarren xentimorik kobratzen ez duena”. Lertxundiren obra gerora hazi da, sendotu, gaingitu ditu hasierako ipuin haiek. Baina ia mende erdi bat geroago irakurririk, eta emailu batek kolpatzen digun bezala, “nekerik gabe atzemango dugu idazle baten sena bideratu zuela genero baztertu honek”. Ibilbide literario luze eta oparoena ere, beti, noizbait hasten baita. ■

**Aritz Galarra**



**bardoak** 2014

naifarreako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



harrapazkaria

**argia**



**MARTXOAK 28 OSTIRALA**

Iruñeko Iruña taldea elkarte, 21:00etan, bertso-merendua  
**12 OBARIO ETA 11 PEDRADA - HARRAPAZANK**

**MARTXOAK 29 LARUNBATA**

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarte, 19:00etan, bertso-merendua  
**BERTZE MALDIKOAK - ETXKO KONTUK**

**MARTXOAK 29 LARUNBATA**

Igantzioko Biltoki elkarte, 21:00etan, bertso-afaria  
**ZORTZIKO HAUNDIENA - LEPATANATUEK 2, TXAPIROEN ITZULERA**

**MARTXOAK 30 IGANDEA**

Leitzako Atekabeltz gaztetxean, 18:00etan, bertso-merendua  
**HARRAPAZANK - 12 OBARIO ETA 11 PEDRADA**

Informazio osoa eta zurrerak

**WWW.BERTSOZALE.COM**